

eta metodoz bereizten dutena. Helduen katekesiak bilatzen duena zera da: *teologiaren aldetik kristaua eskolatzea, eta, fedearen argitan, historiako gorabehera, gizarteko arazoak eta norberaren bizitzako esperientzia argitzeko gaitzea. Bestelako *ideologiek, erlijioek eta zientziek jartzen dituzten galderei bere fede-ikuspegitik erantzuna emateko gauza izan behar du kristau helduak, bere "esperantzaren berri" eta arrazoi emateko gauza izatearekin batera.

Laikoentzako teologia esakunea eta helduen katekesiak gauza bera esan nahi dute. Euskarazko liburutuan Helduentzako Kristau Ikasbide Berria edo Holandako Dotrina entzutea, euskaraz Kristau Bidea izenez argitaratua, dago bereziki helduen katekesirako moldatua.

Ik. Laikoentzako teologia; Katekesia.

Heliozentrismoa

Koperniko-ren teoria eta Galileo Galilei-ren aurkikunde astronomikoa, zeinaren arabera eguzkia bait da lurraren eta beste planeten sistema osoaren erdigunea. Lurra bereziki eguzkiaren inguruan dabilela baieztatzen zuten; horregatik Ofizio Santuaren erasoa jasan zuen Galileik, horren baieztapenak *Bibliaren kontra omen zeudela eta. Espetxeratu eta guzti egin zuten.

Ik. Geozentrismoa.

Heotsgilea

Ik. Argiak.

Henoteismoa

Monoteismoaren eta politeismoaren artean dago. Fede-modu bat adierazten du, jainkoak bat baino gehiago direla buruz onartzen duena, baina norberaren etnieren edo Herriaren jainkotzat jainko jakin bat eta bakarra, bere izen eta guzti, aitortzen duena, beste guztien gainetik dagoena eta, gertatzez, beste guztiak ukatzen dituen.

F. Max Müller-ek sortu zuen hitz hori 1860an.

Ik. Nazio-erlijioa; Monoteismoa; Politeismoa.

Herensugea

Elezaharretako animalia, "suge"aren itxurakoa, era batera ala bestera irudikatua, Herri guztietan agertzen dena, eta ia beti irelu gaiztotzat eta etsaiaren edo *deabruaren sinbolotzat hartzen dutena; horren kontrako borroka bizitzako probaldi nagusia da gizon-emakumeentzat.

Elezahar askotan agertzen da gizakiaren eta herensugearen arteko borroka: gure artean ezaguna Teodosio Goñirena da, Aralarreko San Migelen kokatzen dutena.

Iraunsuge eta bestelako izen ezberdinez ere izendatzen dute irelu hori euskaraz.

Halako *haitzulo eta mendi jakinetan bizi zen, elezahar ezberdinen arabera.

Heresia

Heresia, beraren adiera berezian, honela defini ohi dute: "Jainkoak agerturiko eta Elizaren irakaslego arruntak edo apartekoak fededunei halakotzat irakatsitako egiari zuzenean aurkatzeko zaion jarrera eutsia". Bi baldintzok dira beharrezkoak: Jainkoak agertua izatea egia, eta Elizak halakotzat sinesteko irakastea eta ezartzea. Bigarren baldintza ez gertatzera, Jainkoak argi eta garbi agerturiko egiari buruzkoa izanik ere, heresia baino kalifikazio teologiko askozaz beheragokoa eman ohi zaio halako egiaren ukapenari.

Tertulianogandik hasita, egien edonolako hautapen apetzatzen ulertu izan da heresia (grezierazko hairesis = hautapena hitzetik datorrena): horrek ez du aintzat hartzen orduan guztiek elkarrekin duten regula fidei delakoa.

Aurretik fede-arauren bat, heretikoak onartzen ez duena dagoela esan nahi du horrek: horregatik da, hain zuzen, heretiko hura. Fede-araue horixe zehaztean eta ezartzean dago, egon, buruhaustea. Ezin bazter daitezke honelako galderak. Definiturik ote dago benetan halako egia? Nork eta nola eta zeren arabera ezartzen da fede-araua? Zein da halako araua ezartzeko legitimitasuna? Itaun guzti horiei ematen zaion erantzunak erabakitzen du halako egiaren ukapena heresiatzat kalifikatu behar ote den ala ez.

Kristau-heresia handiak hasierako Elizaren garaikoak dira, orduantxe finkatu bait ziren *kristautasunaren oinarriko *dogmak: hala nola, *Hirutasunarena, *gizakundearena eta batasun hipostatikoa izenekoarena. Aipa ditzagun soilik nagusienak: *Arianismoa, *nestorianismoa, *monofisismoa, *monotelismoa.

Elizaren antzinatean oso garrantzizkoak gertatu ziren, era berean, graziari buruzko heresiak, *pelagianismoa eta *erdipelagianismoa, e.b.; benetako arazoa izan dira horiek Elizaren eta teologiaren historian zehar. Ik. Jainkoaren grazia.

Bestelako heresia asko sortu izan da historian zehar; esan beharrezkoa da, ordea, teologiazko eztabaiden gorialdian heresia-

Herioa

tzat edo heresiaren hurbilekotzat jo dituzten irakatsi batzuk, gerora argi ikusi da fede-arau on eta zuzenarekin erabat ados zeudela. Hortixe etorri da, hain zuzen, honako esaera moduko hau, ausarta baina ez guztiz okerra: "Agudoegi aldarrikaturiko egia besterik ez da heresia". Ez dira okerrago ibili beste hau gaineratu izan dutenak: Edozein egia, beraren inguruan biraka eta biraka dabilenean, absolutetsi egiten da eta heresia bihurtzen, beraz, horrela bestelako egia baztertzeko baita ditu.

Dena dela, "heresia" askoren, antzina-koen nahiz modernoek, historia gorabeheratsuan erasan handia ukan dute giza grina txarrekin eta interes politikoekin ere bai.

Ik. Apostasia; Zisma; Irakasbidea; Dogma; Definizio dogmatikoa.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Herioa

Heriotzaren pertsonifikazioa da, eskeleto gisa irudikatzen dutena, sarritan sega bizkarrean duela. Bizkaieraz balbe esaten da.

Herioaren dantza

Erdi Aroko pinturatan eta antzerkitan askotan irudikatzen zuten gai ezaguna da. Herioaren irudiak adin eta egoera sozial ezberdineko lagunak bilduz, dantza-taldearen tankeran eramaten ditu hilobira.

Horrelako pinturazko irudikapena berriki aurkitua dute Xabierreko gazteluko kaperatxo batetan.

Ik. Heriotza.

Heriotza

Herri eta kultura guztietan erdi-erdiko lekua eduki ohi du heriotzak. Hamaika *mitologia badira heriotzaren inguruan. Euskal Herrian hainbat dira sinesteak, ihardunak eta *erritoak heriotzaren inguruan, ikuskerak antropologiko sakonaren ispilu direnak.

Aurreritzi ezberdinetatik ukitu du gai hori antropologia modernoak; eta batez ere, gizakiaren eta horren *gorputz-arimen berezko harremanaren ikuspegi berritik, non giza-banakoa gorputz-izpirituzko osotasun banantzeina eta komunikakorra baita. Bibliako soma (=gorputza), psike (=arima) eta pneuma (=izpiritua) kontzeptuekin loturik dago ikuspegi moderno hura, hiru kontzeptu horiek, ñabardura ezberdinez bada ere, gizaki osoa adierazten dutenez.

Gauza horrela ikustera, heriotza ez da arimaren eta gorputzaren banantze hutsa.

Gizon-emakumeak osorik hiltzen dira, beren materiazko-izpirituzko banantzeintasan horretan, bizi ere osotasunean bizi diren bezala. Bizitzaren denborazko bilakaeraren amaia da heriotza. Egokiagoa da, hala ere, hiltzeaz mintzatzea eta ez heriotzaz, horrela hobeto adierazten baita heriotzaren eta bizitzaren arteko lotura: Bizitza legez, heriotza ere etengabeko bilakaera da, eta bizitzako aldiune bakoitza da nolabait azkena.

Gure lurreko bizitza, bai denboran eta bai espazioan *libertatearen mugatzea bere baitan daramana, inoren eskuetan uztea da heriotza. Giza libertatea garbitu, gardendu eta osorik komunikakor izango bada, beharrezkoa da hiltzea. Heriotzatik igaroz jartzen dira gizon-emakumeak zer sakonarekin elkartasun osoenean eta ustegabekoenean, beren espaziozko eta denborazko mugak gainditu ondoren. Bizitzara deituak daudenez, heriotzara ere deituak daude gizon-emakumeak. Azkenburuko jaiotza da heriotza.

Hala ere, giza heriotza ez da bizitzako gertaera aldenuezin hutsa. Erabakia da, librea eta behin-betikoa, bizitzan zehar egindako hautapen ugarien fruitua eta ondorioa. Une horretantxe ebazten dute gizon-emakumeek Bestearenganako elkartasunezko irekiera ala osotasunarekiko behin-betiko itxiera.

Erabaki horietako bata *zerua eta bestea *ifernua deitzen ditu Bibliak. Aurrenak elkartasunezko *zoriona eta mugagabeko askatasuna daramatza bere baitan; bigarrenak, aldiz, norbanako bakartu eta porrokatuaren, bere bakartasunean suntsitutakoaren erabateko alferrespena.

Heriotzak badu bere mingarritasun eta dramatikotasuna, areago, bere larrimina ere. Kristau-errebelazioaren arabera, *bekatuari zor zaio gizon-emakumeen behin-betiko aldiuenean horren izugarritasuna. Bekatuzko itxieraz gizon-emakumeak Jainkoagandik aldentzean, beren *esperantza behin-betiko eta osotik aldentzen dira. Aldentze horrek garamatza larriminezko hutsune gisa nabaritzera heriotza, ezerezean, ez-izatean, erabateko galbidean suntsitzeko zorian ipiniko gaituelakoan. Horra Jesus ifernuetara jaitsi zelako perpausaren adiera ezkutua: hau da, bekatuaren ondorio den heriotzak bere baitan daraman leize-hutsunea nabari izan zuela (Gn 3; Erm 5,12).

Jesusenganako fedetik abiatuz, *piztueran adierazi eta gauzatzen den *esperantza gorenaren aldiunea da batez ere heriotza.

Ik. Bizia; Larritasuna; Gerorengoak.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi